

# 1925eko abangoardia gogoan

Bilboko Museoan artea berritu zutenen lanak daude ikusgai

**A**rtista Iberikoen Elkarteko partaideen lanek osatzen dute Bilboko Arte Ederretako Museoan apirilera arte zabalik egongo den erakusketa. 37 artistaren 160 lan dira. Artearen mundua «irauli» egin zutela diote adituek. Elkarteko kide izan ziren Uzelai, Gezala, Arteta, Tellaetxe, Etxebarria, Zubiaurre, Urrutia eta abar. Hauen lanekin batera Dali edota Barradasenak daude ikusgai Bilbon.



Pinturek, eskulturek eta marrazkiek osatzen dute apirilaren 14ra arte zabalik izango den erakusketa.

XOUSE S IMAI

Montse Arregi / Bilbo

ORDURA arte indarrean zegoen artea ulertzeko modua «irauli» egin zuten 1925ean Artista Iberikoen Elkartea osatu zuten artistek. Urte horretan Madrilen egin zuten erakusketa «mugarri» izan zela diote adituek. Euskal herritar asko zeuden abangoardia horretan, Artista Iberikoen Elkartek eta Euskal Artisten Elkartek izan zuten harreman estua zela medio.

La Sociedad de Artistas Ibéricos y el arte español de 1925 izeneko erakusketa da hil osoan zehar eta apirilaren 14ra arte Bilboko Arte Ederretako Museoan ikusgai izango dena. 37 artistaren 160 lanek osatzen dute erakusketa, pinturek, eskulturek eta marrazkiek. Madrillgo Reina Sofia zentroan egon da aurretik erakusketa hau. Bertan 1925ean «lehertu» zen berrikuntzak gogoratu nahi dira.

1925eko ekainean Madrilen egindako erakusketan 500 lan


jarri zituzten ikusgai, arte mailako haize berrien erakusgarri. Erakusketak, oro har, eztabaida piztu zuen artista guztien artean. Primo de Riveraren diktaduraren garaia zen Espainiako Estatuan. Historialari eta adituari arabera kultura artistiko garaikidearen bilakaeran «mugarri» izan zen erakusketa hau.

**Guda Zibilak zapuztutako ildoaren hasiera** • Jaime Brihuela eta Concha Lomba dira erakusketako komisariak. Beraien hitzetan, Artista Iberikoen Elkartek «batietik mendeko lehen laurdeneko abangoardia artistikoaren erradikalismo neofitoaren amaiera ekarri zuen, eta, bestetik, Espainiako historia artistikoaren bigarren ibilbide garrantzitsu bati hasiera eman zion, Guda Zibilak bertan behera utziko zuena hain zuzen».

Barradas izan zen abangoardia honen aitzindaria. Artista Iberikoen Elkartek ordutik aurrera abangoardiaren protagonista

izan zirenak aurkeztu zituen: Dali, Alberto Sanchez, Pancho Cossio, Jose Moreno Villa, Benjamin Palencia, Angel Ferrant, Francisco Borés, Jose Maria Uzelai, Antonio Gezala eta abar. Hauekin batera berrikuntzaren aldeko talde zabala osatu zuen Elkartek, hauen artean zeuden Jose Gutierrez Solana, Juan Etxebarria, Aurelio Arteta, Santiago Pelegrin, Roberto Fernandez Balbuena, Jenaro Urrutia eta Julian Tellaetxe, besteak beste.

1925eko erakusketaren ondoren itxuraz desagertu egin zen Artista Iberikoen Elkartea. Dena den, egin zituzten beste erakusketaldia batzuk: 1931n Donostian eta hurrengo urtean Valentzian, Kopenhagen eta Berlinen. 1932an eta hurrengo urtean Elkartek Arte aldizkariaren bi zenbaki bakarrak argitaratu zituen. Irudi eta testuak argitaratu eman zituen aldizkari honek. Azkenik, 1936an, Elkartek Parisko Jeu de Paumen erakusketa handia antolatu zuen. X



## Mikel Laboa gaur Donostian

Donostiako Victoria Eugenia antzokiak Mikel Laboaren kantaldia aterbetuko du gaur gaueko hamarretatik aurrera. Aparteko musikari taldea izango du laguntzaile: Iñaki Salvador (pianoa), Josetxo Silguero (saxoa), Eduardo Salvador (baxua eta xirula), Aitor Landeta (bateria), Jexux Artze, Joseba Uzelai (txalaparta), Carlos Itoiz (gitarra espainiarra) eta Joseba Tapia (trikitixa). Horiez gain sorpresa moduan beste kantari ezagun batzuk izango dira taula gainean. Laboak bere ibilbidean egin dituen kantuak eskainiko ditu, orain berrogei urte kantatzen hasi zen garaietakoak eta orain bi urte kaleratutako azken diskokoak; euskal kantu tradizionalak, *lekeitioak* eta poesia musikatuak. Euskal kantagintzako musikaririk pertsonalena ikusteko aukera, beraz, gaur Donostian.

## Lucky Petersonek Baionan joko du gaur arratsaldean

■ Musikari honek arrakasta lortu zuen 1994an

L.Fourcade / Baiona

LUCKY PETERSON musikaria Baionako antzokian izanen da arratsalde honetan bere taldearekin. Harresietako Jazz Jaialdiaren V. edizioan sekulako arrakasta ukan zuen musikaria berriro euskal lurretan izanen da eta gune intimistagoan entzuteko aukera paregabea izanen da. Denbora laburrean artista fenomeno internazional bilakatu da. Hots, hiru urte baizik ez zituen bateriari ekin zionean eta 1972an bere lehen albuma zabaldu zuen bost urterekin. Hautza-

roan eta gaztaroan, ikasketak sakondu zituen organoa, bateria, tronpeteta eta gitarra ikasiz. Sare profesionalean sartu zen 17 urterekin eta laster sekulako fama bildu zuen Petersonek.

Petersonen bluesa ez da tristea. Kantuak aldizkatzen ditu pausurik gabe eta ezohiko giroak sortzen ditu. Bere gitarra horia suhartzten denean, ikarak zeharkatzen du entzulearen gorputza, ahantzi gabe eszenaren aurrean dagoen maisuaren Hammond organoa. Petersonek bluesa bere baitan dauka eta 29 urterekin goi mailako artista da. X

# IRAGARKI MERKEAK (943) 300222

31 x 33 mm

31 x 33 mm  
MODULO  
(Araba-Nafarroa)  
Eguna: 1.850 pta  
Astea (6 egun): 1.500 pta  
2 aste (12 egun): 1.300 pta  
Hilabetea (24 egun): 950 pta

66 x 69 mm  
4 MODULO  
(Gipuzkoa-Bizkaia)

Eguna: 9.800 pta  
Astea (6 egun): 7.800 pta  
2 aste (12 egun): 7.000 pta  
Hilabetea (24 egun): 4.800 pta

66 x 33 mm  
2 MODULO  
(Gipuzkoa-Bizkaia)

Eguna: 4.900 pta  
Astea (6 egun): 3.900 pta  
2 aste (12 egun): 3.500 pta  
Hilabetea (24 egun): 2.400 pta

Dendari Euskalduna  
Eskaintzen da  
(94) 445 81 21

IRAGARKI  
MERKEAK

BITXIGILEAK

Tardaguila

ERLOJULARIAK

DENDA ETA LANTEGIA

TXOFRE KALEA 4, 27 82 77 DONOSTIA

EL CASTRO

GAS & BEROGINTZA  
INSTALAZIOAK

DUQUE DE MANDAS 38, 6-D  
Tel.: 27 70 85 - Faxa: 29 26 65  
EGIA - DONOSTIA

Titiriteroak



Antzerkia  
Haur berbena  
Zirkotailerra

908772347  
(943)467597